



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**2015/2016 denboraldia**

## **20 ZK.DUN ZIRKULARRA**

### **EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XXI. EMAKUMEZKOEN KOPA**

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin bat, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo araei jarraiki :

#### **1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK**

Izena eman duten hamabost taldeek hartuko dute parte, hurrengo eran bananduta

##### **A) BIGARREN NAZIONAL MAILA**

Añorga K.K.E. "A", Athletic Club "B", Eibar S.D., Leioako Emakumeak S.F.K.E., Mariño C.D., Pauldarrak F.K.T. eta San Ignacio S.D.

##### **B) EUSKAL LIGA**

Arratia C.D., Bizkerre Club, Elorrio C.D., Erandio Betiko Neskak F.K.E., Lakua Vitoria-Gasteiz C.D., Peña Ath. Santurtzi C.F., Ugao C.D. eta Zarautz K.E.

#### **2.- LEHIAKETA SISTEMA**

Fase bitan egingo da: aurrekoa eta finala.

##### **1. Aurretiazko Fasea (maiatzak 22)**

Parte hartuko dute aurreko fase honetan partida batera, B) taldeko zortzi klubek eta A) taldeko sei klubek, bat libre geratuz.

Hamalau taldeak zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira eta kategoria berdineko taldeek ez dute elkarren aurka jokatu, posible den heinean.

Garaileak, fase honetatik libre geratu den batera, txapelketaren amaiera fasean hartuko dute parte.

##### **2. Amaiera Fasea**

Final-laurdenek, finalaurrekoek eta finala eratuko dute, hiru kasuetan partidu bakarraren arabera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

### -Final-laurdenak (maiatzak 29)

Txapelketaren aurretiazko fasea gainditu zuten taldeak eta honetatik libre geratutakoa hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta. Joko-eremuen hurrenkera bolek ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

### - Finalaurrekoak (ekainak 5)

Final-laurdenetako lau garaileek hartuko dute parte, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera bolek ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

### Finala

Finalaurrekoen bi irabazleen artean ospatuko da, ekainaren 11an. Zozketa baten ondoren bi taldeen artean baten futbol zelaian egingo da.

## **3.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA**

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalaria parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artean.

## **4.- BERDINKETAK**

EFFren Araudi Orokorrek ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

Partidua amaituta, emaitza zeinahi dela ere, penaltiak jaurtiko dira talde bakoitzeko bost derrigorrez, harik eta talde bietako bat irabazle gertatzen den arte. Emaitza hori aintzakotzat hartuko da sailkapen orokorrean izan daitezkeen berdinketak desegiteko azken tresna moduan.

Finala partiduan berdinketa izan ezker, penalti puntutik jaurtiketa serieak egingo dira.

## **5.- ARBITROAK**

Aurretiazko fasea, Erregional Goreneko arbitroak hautatuko dira partidak zuzentzeko, eta partida jokatzen den lurraldeko federazioko kide izan beharko dute.

Ordainagiria Emakumezkoen Euskal Liga mailako txapelketakoaren zenbateko berekoa izango da.

Final-laurdenak, finalaurrekoak eta Finala, Nazional mailako arbitroak hautatuko dira partiduak zuzentzeko, eta ordainagiria 115€tako bakarra izango da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## **6.- PARTIDEN ORDUTEGIAK**

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 P. Elektronikoa [webmaster@eff-fvf.eus](mailto:webmaster@eff-fvf.eus) edo EFF web orrian )

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30ra. Epe honetatik kanpo hasiko dira partiduak, klubaren arteko akordioarekin.

## **7.- GARAIKURRA**

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

Hogeitabost doluminak talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

## **8.- DISZIPLINA BATZORDEA**

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroaren aktak, Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2016eko maiatzaren 4an

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL